



Urko, 1958. urteko urtarrilak 1a.

URKON, SALDA EDO TXANPAINA?

Ohitura asko galduz doazen arren, beste batzuk urteak pasatu ahala aldatuz joaten dira besterik gabe. Azken hauen artean sar dezakegu, zailantzarik gabe, urtarilaren batean Urkora igoztearena.

Aintzinatik hasi eta orain dela gutxi arte, urte berriarekin batera, ermuar eta eibartarrak Urkora abiatzen ziren. Tontorrera heldu bezain laster, une hori inoiz ez ahazteko, argazki batean isladatzen zen. Gaur egun oraindik, zuetako askok aspaldiko argazki haiek etxeko tokiren batetan gordeta edukiko dituzue...

Baina argazkiez gain, garai horretako hotza uxatzeko asmoz edo, bil-

dutako guztiek Elorreta Goikuan salda beroa hartzen zuten. Horrelakoetan, aurrekua edo trikitixak nork dantzatu ere egoten zen normalean...

Gaur egun, Urkora igotzeko ohitura mantendu bai, baina gorputza berotzeko era aldatu dute batzuek, eta salda edan beharrean, zurrutatatxo bat ematen diote txanpain botilari. Aro modernoaren berrikuntzak ote?

Era batera edo bestera, giro ezin hobea izaten da Urkon. Beraz, badakizue... alperkeria alde batera utzi, parrandan egin eta gero mendira bueltatxo bat egitea komenigarria izaten baita ajea kentzeko...